



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2023ko MAIATZAREN 16an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO EZ OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2023ko maiatzaren 16an, eguerdiko 13.00 orduetan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK: Vicente Garcia Momblona  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Mireia Ruiz Delgado  
Aitor Beistegui Fiallegas


Bere ezin etorria adierazten dute: Maialen Alonso Labandibar eta Jesus Maria Tejada Cantero.

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. 2/2023 zenbakidun Kreditu aldaketa espedientearen hasierako onespena/Aprobación inicial del expediente de modificación de créditos nº 2/2023.**
- 2. Larraulgo ekomuseoaren dinamizazioa aurrera eramateko zerbitzuaren esleipena, hala bada/ Adjudicación del servicio de dinamización del ecomuseo de Larraul .**
- 3. Larraulgo kultura ekimenen dinamizazioa Aurrera eramateko zerbitzuaren esleipena, hala bada/ Adjudicación del servicio de dinamización de las actividades culturales de Larraul.**
- 4. 2023 urterako udal langileen opor egutegien onespena./ Aprobación de los calendarios de vacaciones del personal municipal para el año 2023**
- 5. Harituz Bertsozale Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada./ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Harituz Bertsozale Elkarteak.**
- 6. Larraulgo udala eta Katilutxulo Elkartearen arteko hitzarmenaren onespena/Aprobación del convenio entre el Ayuntamiento de Larraul y la Katilutxulo Elkarte.**
- 7. Eusko Jaurlaritzak apirilaren 26ko dataz eginiko eskaera betetzea eta Larraulgo Lanpostu zerrendan Idazkari Kontuhartzaile lanpostuari ezarritako ordain maila aldatzea/ Cumplir con la solicitud del Gobierno Vasco de fecha 26 de abril , modificando el**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**nivel retributivo establecido en la relación de puestos de trabajo de Larraul para el puesto de Secretario-Interventora.**

- 8. Bake epailea eta bere ordezkoren hautaketaren onespena/ Selección de Juez de paz y su sustituto.**
- 9. 2023 urterako Tolosaldeko Komunikazio taldeak eginiko dirulagutzaren eskaeraren azterketa/Estudio de la solicitud de subvención de Tolosaldeko Komunikazio taldea para el año 2023.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

### **2/2023 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA**

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### **KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:


Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1 0000.160.153.40.01 2023	GIZART.SEG.PERTS.LABOR.OBR. BRIG.	6.000,00	3.000,00	9.000,00
1 0000.162.920.00.01 2023	FUNTZIONARIEN PRESTAKUNTZAK	150,00	50,00	200,00
1 0000.200.172.00.01 2023	LURSAILEN ALOKAIRUA: URMAELA	0,00	2.000,00	2.000,00
1 0000.227.153.40.07 2023	AZTERK.ETA AHOL.ZERBIT: PREBENTZIOA.BRI	1.350,00	60,00	1.410,00
1 0000.422.410.00.01 2023	BESTE ENTIT.EKARP.TOLOMENDI	2.000,00	76,00	2.076,00
1 0000.628.332.10.01 2023	LIBURUTEGIRAKO LIBURUAK	1.500,00	500,00	2.000,00
1 0000.626.920.00.01 2023	ZERB.FUNTZION.INBERTS: ORDENAGAILUA	0,00	200,00	200,00
1 0000.780.341.00.01 2023	TXIRRINDU ELEKTRIKOAK HERRITARREI	0,00	250,00	250,00
1 0000.629.338.00.01 2023	JAIETAKO EDALONTZI ERABILGARRIAK	0,00	550,00	550,00
1 0000.625.332.10.01 2023	LIBURUTEGIRAKO ALTZARIAK	0,00	350,00	350,00
1 0000.623.330.00.01 2023	BOZGORAILUA	0,00	300,00	300,00
1 0000.226.333.00.03 2023	EKOMUSEOKO TRIPTIKOAK	0,00	350,00	350,00
1 0000.210.171.00.01 2023	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.PARKE ETA LOR.	500,00	2.000,00	2.500,00
1 0000.623.153.40.01 2023	HERRI LANETARAKO MAKINARIA	0,00	3.000,00	3.000,00
1 0000.227.332.10.07 2023	AZTERK. ETA AHOLKULARITZA: KULT.KIROL.JA	9.000,00	9.000,00	18.000,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1 0000.227.333.00.01 2023	KANPOKO ENPRES:MUSEOAREN KUDEAKETA	5.000,00	5.000,00	10.000,00
1 0000.625.920.00.01 2023	INBERTSIOAK: ONDARE ONDASUNAK	2.000,00	250,00	2.250,00
<b>GUZTIRA</b>		27.500,00	26.936,00	54.436,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2023	GERAKINAK	26.936,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>26.936,00</b>

**BIGARRENA:** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.


### **BIGARRENGO PUNTUA**

### **LARRAULGO EKOMUSEOAREN DINAMIZAZIOA AURRERA ERAMATEKO ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA**

Larraulgo Udalak, beharrezkoa ikusten du Larraulgo ondare material-immaterialaren dinamizazioa, hau da Larraulgo Ekomuseoren dinamizazioari bultzada bat ematea.

Aipaturiko zerbitzua martxan jartzeko **ARRATE ITURBE REKONDO** enpresari aurrekontu bat eskatu zaio.

Ikusita Larraulgo Udalak ez dituela baliabide material eta pertsonalik zerbitzu hau bere kabuz eramateko.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

### *Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*


*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 3.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: ARRATE ITURBE REKONDO andreari, urte betez, Larraulgo Ondare material-inmaterialaren dinamizazioa aurrera eramateko zerbitzuaren kontratua esleitzea 14.400,00€ (BEZa kanpo), 1.0000.227.333.00.01 kontu sailen kontura "Museoaren kudeaketa" .

BIGARRENA: Erabaki honen berri Arrate Iturbe Rekondo andreari ematea.

### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

### **LARRAULGO KULTURA EKIMENEN DINAMIZAZIOA AURRERA ERAMATEKO ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA**

Larraulgo Udalak, beharrezkoa ikusten du Larraulgo Kultura ekimenen dinamizazioa aurrera eramatea.

Aipaturiko zerbitzua martxan jartzeko ARRATE ITURBE REKONDO enpresari aurrekontu bat eskatu zaio.

Ikusita Larraulgo Udalak ez dituela baliabide material eta pertsonalik zerbitzu hau bere kabuz aurrera eramateko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.


*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación,*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 3.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: ARRATE ITURBE REKONDO andreari, urte betez, Larraulgo Kultura ekimenen dinamizazioa aurrera eramateko zerbitzuaren kontratua esleitzea 14.400,00€ (BEZa kanpo), 1.0000.227.332.10.07 kontu sailen kontura “Azterketa eta aholkularitza zerbitzua: Kultura, kirolak, jaiak.....” .

BIGARRENA: Erabaki honen berri Arrate Iturbe Rekondo enpresari ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**


### **2023 URTERAKO UDAL LANGILEEN OPOR EGUTEGIEN ONESPENA**

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2022 ekitaldirako opor egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2022 urterako Udal langileek aurkezturiko opor egutegiak onartzea.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **HARITUZ BERTSOZALE ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten helburua dela Tolosaldean bertsozaleen belaunaldiz belaunaldi transmititzea eta horretarako beharrezkoa dutela soldatapeko irakasle bat kontratatzea (koordinazio, Bertso eskola eta Komunikazio lanak egingo dituen), beraz azken honen soldata ordaintzeko diru-laguntza eskaera egiten dute.

Ikusirik 2023ko udal aurrekontuetako 422.334.00.03 partidan 500,00 euro aurreikusi direla.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarteari 500,00 euroko diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarteari jakinaraztea udaletxe honetan emandako diru-laguntza zuritzeko urteko memoria, gastu eta sarreraren kitapena, gizarte segurantzaren eta zerga ogasunean egunean daudela dioen aitorpena eta dagozkion fakturak aurkeztu beharko dituela.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO UDALA ETA KATILUTXULO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA**

Ikusirik Larraulgo udala eta Katilutxulo elkartearen arteko hitzarmena berri egin behar dela.

Ikusirik Larraulgo udala eta Katilutxulo elkartearen arteko hitzarmenaren zirriborro bat prestatu dela, ondorengoa izanik:

### **“LARRAULGO UDALA ETA LARRAULGO KATILUTXULO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA**

Larraulen, 2023ko maiatzaren 16an





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aipaturiko egunean Udaletxera bertaratzen dira

BATETIK, MAITE ARANA PEREZ Andrea, Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakari andrea, N.A.N. zenbakia 20.169.571-C duena, jakinarazpenerako Larraulgo San Esteban enparantzan helbidea duena, eta Larraulgo Udalaren izenean jarduten duena.

BESTETIK, GORETTI AMONARRIZ IRASTORZA andrea, N.A.N. zenbakia 72.553.628-J duena, eta jakinarazpenerako Larraulgo, Larraul núcleo 25-1 helbidea duena, eta Larraulgo Katilutxulo Elkartearen izenean jarduten duena.

BIAK DOKUMENTU HAU SINATZEKO AHALMENA EGIAZTATZEN DUTE.

### **HITZARMENAREN OINARRIA**

Ikusita Katilutxulo Elkarteak kokatuta dagoen lokala, Larraulgo udalaren jabetzakoa dela, bertan, herriko biztanleria, mahai baten bueltan elkartu eta jarduera eta ekitaldi desberdinak antolatzeko egokituta dagoena.

Ikusirik 2010. urteko abenduaren 12an, Larraulgo Udalak Katilutxulo Elkarteari, Udaletxe azpiko lokal publikoaren erabilera baimena eman ziola 10 urtetarako, baldintzen artean denboraldia amaituta luzatzeko aukera ematen zelarik.

Ikusirik goian aipaturiko 10 urteak igaro direla, baino Larraulgo Udalak, Katilutxulo Elkarteari, Udaletxe azpiko lokal publikoaren erabilerarekin jarraitzeko baimena eman nahi diola eta aipaturiko Elkarteak lokal publikoaren erabilerarekin jarraitzeko interesa duela.


### **BI ORDEZKARIEK ONDORENGOA HITZARTU DUTE:**

LEHENA: Katilutxulo elkarteari, udaletxe azpian kokatutako lokal publikoaren erabilera baimentzea, ondorengo baldintzekin:

-BAIMENARIEN BALDINTZA OROKORRAK:

1.- Baimenaren iraupena mugatua izango da lau urtetara, denboraldi hori agortuta Katilutxulo Elkarteak, Larraulgo Udalari eskaera egingo dio baimen berri bat emateko.

2.- Larraulgo Udalak, berarentzako edo hirugarren batentzako, lokalaren beharra ikusiko balu, hitzaldi, filma emanaldi edo beste ekitaldi bat aurrera eramateko, ez luke inongo oztoporik izango. Baldin eta, eskaera 10-15 eguneko aurrerapenarekin (ezinbesteko kasuetan izan ezik) egingo balitz eta elkarte erabiltzaileak lokalari eta bere mantenuari buruz jartzen zaizkien baldintzak errespetatuko balitu.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3.-Baimendunak, lokala emandako xedearekin erabiliko du, horrela ez bada, baimena bertan bera geldituko delarik.

4.- Lokalaren erabiltzaileek bertako ondasunak modu zuzen batean erabiliko dituzte, kalte garrantzitsuak sortuko balira jakinaraziko zaizkio udalari.

5.- Erabiltzaileek, lokalean aurrera eraman beharreko jarduerarako baimen guztiak edukiko dituzte.

6.- Lokalaren mantenurako gastuak erabiltzailearen gain geratuko dira, batez ere lokalean lan egin dezaken pertsonala (garbiketako eta abar.) elkarte erabiltzailearen pean geldituko da.

7.- Baimenen klausulen interpretazioa udalak egingo du.

8.- Larraulgo Udalak, edozein momentuan, lokala berreskuratzeko ahalmena izango du herriaren interes handiagoa egongo balitz (interes prevalente) eta inongo kalte-ordainik eman gabe, beti ere baimendutakoari bi hilabeteko epearekin jakinaraziz.

### -BAIMENAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK: KATILUTXULO ELKARTEAK BETE BEHAR DITUENAK:


1.- Herriko festetan eta aste Kulturalaren antolaketan parte hartzea, kide ez diren herritarrei ere parte hartzeko aukera emanez. Elkarateak hurrengo ekintzen antolaketan parte hartzeko konpromezua hartzen du:

- San Esteban eta San Bartolomeetako herri hamaiketako
- San Estebanetako mus txapelketa
- Kultur Asteko talo eta gaztain jana

2.- Urtean zehar lokala behar dutenei babesa eman, behar diren ekintzak antolatu daitezzen.

3.-Lokalaren edukitzailea (continente) udaletxearena da eta edukia berriz elkaratearena. Beraz, elkaratea desegingo balitz lokala udaletxeak berreskuratuko luke. Bertako edukiak ordea (elkaratearen bitartez erositakoak) elkaratearentzat geratuko lirateke. Horien artean, elkarateko ontziteria, hozkailua, kafetera, ontzi-garbigailua, suak, mikrouhina, telebista, armairuak, aulkiak eta mahaiak, baita une horretan elkaratean dauden produktuak ere. Bestalde, udaletxeak berreskuratuko dituenen artean lokala, kaldera, komunak, lokalaren atzealdeko mahai eta parrila eta erradiadoreak izango dira.

- Hala ere, elkaratearentzat izango diren edukiak udaletxeari saltzeko aukera irekita utziko da eta proposamena luzatuko zaio,



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

udaletxeak interesa izango balu akordio batera iritsi eta erosteko. Batez ere, desmuntatzen zailak diren elementuen kasuan.

4.-Herritar guztiak, barne kanpoan bizi diren herritarrak, izango dute bazkide izateko aukera.

BIGARRENA: Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Sektore Publikoko araubideari buruzko urriaren 1eko 40/2015 legearen 47. eta hurrengo artikuluek arautuko dute.

Dokumentuan jasotako guztiarekin ados izanik, goian aipaturiko lekuan eta datan bertaratuek sinatzen dute.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo udalaren eta Larraulgo Katilutxulo elkartearen artean egindako hitzarmena onestea.

BIGARRENA: Maite Arana Perez, Larraulgo udaleko alkatesa ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Akordio honen berri interesdunari ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**


### **EUSKO JAURLARITZAK APIRILAREN 26KO DATAZ EGINIKO ESKAERA BETETZEA ETA LARRAULGO LANPOSTU ZERRANDAN IDAZKARI KONTUHARTZAILE LANPOSTUARI EZARRITAKO ORDAIN MAILA ALDATZEA**

Ikusita Eusko Jaurlaritzako Gobernantza publiko eta autogobernu saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza, Toki administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzatik apirilaren 26ko data duen errekerimendua, non ondorengoa dioen:

*“Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2023ko apirilaren 3ko 64. zenbakian, Larraulgo Udalaren lanpostu zerrenda (aurrerantzean, LZ) argitaratu zen.*

*LZren edukia aztertu ondoren, Zuzendaritza honek honako hau esatea komenigarritzat ulertzen du:*

*Idazkari Kontuhartzaile lanpostua A1 eta A2 azpieskaletara irekita uztea zuzena da.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Esandakoaren ondorioz, Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen ordainsariei buruzko uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuaren 4.2 artikuluan jasotakoarekin bat etorriz (abenduarien 22ko 343/1992 Dekretuak emandako idazkeran jasotakoa), A1 eta A2 azpieskaletara irekita uzten diren lanpostuen destino-osagarriak A1 azpieskalako gutxieneko maila eta A2 azpieskalako gehieneko mailaren artean egon beharko du; hau da, 21 eta 26 maila tartean.*

*Are gehiago, aipatu behar da, 2004ko maiatzaren 26ko Erakunde Politikarako eta Toki Administrazioarako zuzendariaren Ebazpenaren bidez, Alkiza eta Larraul udalerrien elkarteak eratu zela, idazkari lanpostu bat bi udalen artean mantentzeko xedez.*

*Ildo honetatik, Estaturako Gaikuntza duten toki-administrazio funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 3.a) artikulua jasotzen du (gaur egun indarrean dago 128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena), zerbitzu edo baliabide nahikorik ez duten toki-erakundeek batera eta elkartuta eutsi ahal izango diotela idazkaritzako lanpostuari, eta hari egokituko zaio elkartutako erakunde guztietan lanpostu horren berezko eginkizunen administrazio-erantzukizuna.*

*Hori dela eta, udalen elkarteko Idazkari postua bakarra eta bera izango da bi udaletarako.*

*Ordea, Alkizako Udalak argitaratutako LZn, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2023ko martxoaren 31n 63.zenbakian, destino-osagarri maila 21 izango dela ezartzen da.*


*Bada, aurreko guztia kontuan hartuta, Larraulgo Udalaren LZn Idazkari Kontuhartzaile lanpostuari ezarritako ordain maila aldatu beharko da.”.....*

Gaia aztertutik, eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza publiko eta autogobernu saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza, Toki administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzatik eginiko errekerimenduan esandakoa betez, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Idazkari Kontuhartzaile lanpostuari ezarritako ordain maila aldatzea, 19tik 21era.

**BIGARRENA:** Lanpostu zerrenda aldatzea, Idazkari kontuhartzaile lanpostuari ezarritako ordain maila berria jarri eta aldaketa hau Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza publiko eta autogobernu saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza, Toki administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **BAKE EPAILEA ETA BERE ORDEZKOAREN HAUTAKETAREN ONESPENA**

Ikusirik 2023 urteko maiatzaren 30ean Udalbatzarrak, ospatutako ohiko bilkuran, hartutako akordioz datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdi publikoa egitea erabaki zuela.

Ikusirik Larraulgo Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela 2023 urteko apirilaren 20an eta deialdiari buruzko bandoa banatu zitzaiela Larraulgo herritarrei, hamabost lanegunetako epea zabaldu zelarik, 2023 urteko apirilaren 21etik maiatzaren 12ra bitartean, biak barne, interesa zutenak Larraulgo Udaletxean izena eman zezaten.


Ikusirik epearen barnean ondorengo hiru pertsonak eskaera aurkeztu dutela:

- Ibon Jauregi
- Enera Treku
- Sebastiana Balerdi

Ikusirik hiru hautagaiek kargua hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela eta ez dutela Botere Judizialeko Lege Organikoak 102,302, 303 eta 309 artikuluetan, eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erreklamenduan xedatutako ezgaitasun zein bateraezintasun kausarik.

Ikusirik hiru hautagai daudela baldintza guztiak betetzen dituztenak, Udalbatzak, zozketa egitea erabakitzen duela, ondorengo delarik emaitza:

- Titularra: Enera Treku
- 1. Ordezkoa: Ibon Jauregi
- 2. Ordezkoa: Sebastiana Balerdi



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, Udalbatza honek aho batez ondorengoa,

### ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epaile moduan izendatua izan dadin Enara Treku andrea proposatzea.

BIGARRENA.- Datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epailearen ordezkari moduan izendatua izan dadin Ibon Jauregi andrea proposatzea.

HIRUGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri eman eta aldi berean akordioa argitaratu Udaletxeko Iragarki Taulan.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiari ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **2023 URTERAKO TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA**

Ikusirik Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzaren hitzarmena 2023 urterako, Larraulgo Udalak goran aipaturiko diru-laguntza eman dezan.

Ikusirik, 2023 urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.02 partidan, Tolosaldeko Atariari 750 euroko diru-laguntza bat emateko diru kopurua aurreikusten dela.


Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Atariari 750,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzaren hitzarmena onartzea 2023 ekitaldirako, Alkatea hitzarmena sinatzeko ahalmentzen delarik.

HIRUGARRENA: 750 eurotako gastua onestea, 2023 urteko aurrekontu orokorreko 422.334.00.02 partidaren kargura.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Atariari ematea.

*Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 13:36 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*